



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko otsailaren 3a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzekoa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu-esplotazioaren biktima diren emakumeen trafikoaren aurkako neurriak bultzatzen. Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutxaren Entitate Sortzaileen Batzarra desegiteko bidea eman dezan. Mozioa erretiratzea (8. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio gerra zibilean eta diktaduran frankismoak egindako krimenen ikerketa judizialari. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Pirinioetako autobiako azken bi zatietako ordainketari eta itzaleko bidesari gisa ordaindutako kopuruei buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak eginga (9. or.).

—Galdera, Osasuneko kontseilariak “Recomendaciones para una actuación pública sensata y responsable” izeneko dokumentuari buruz duen iritzia gainera, Bakartxo Ruiz Jaso andreak eginga (9. or.).

—Galdera, Gobernu Irekiaren proiektua zabaltzeko kanpainaren aurkezpenari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak eginga (10. or.).

—Galdera, Nafarroako Larrialdietako Agentziako sarjentu izateko bost lanposturen deialdiari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak eginga (11. or.).

- Galdera, jakiteko nola betetzeko asmoa duen Nafarroako Larrialdietako Agentziak Iruñeko lan arloko 2. epaitegiak emandako 215/2011 epaia, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Turismoaren Nazioarteko Azokan egotearen kostuari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (12. or.).
- Galdera, Or baitzetako arma lantegian aurreikusitako esku-hartzeari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (13. or.).
- Galdera, 2011ko abenduan hartutako tributu-neurrien ondorioz izanen den presio fiskalari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (13. or.).
- Galdera, 1512-2012 mendeurrena dela-eta prestatutako programari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (14. or.).
- Galdera, erradioterapia tratamendua hartzen duten Erriberako gaixoentzako autobus zerbitzuaren gaineko aurreikuspenei buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko ba ote dagoen natur monumentuak mantentzeko inolako planik, José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak egina (15. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Comptos Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduaren aldaketa (17. or.).
- Nafarroako Comptos Ganberako 2012. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2011ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2012ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko otsailaren 27an eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte proiektuari.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako enpresa korporazio publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legea onestean aurreikusi zen fasean Nafarroako Enpresa Publikoen Sektorea Berregituratzeko Plana behin buruturik, aintzat hartu beharra dago egungo egoera ekonomikoa eta baliabide publikoen kontrola eta eraginkortasuna areagotu behar direla, ahal denik eta handienak izan daitezzen. Zerbitzu bikoiztuak bateratu, gastu publikoa optimizatu, eragimen handiena lortu eta defizit publikoaren kontrol eta murrizketan modu positiboan laguntzea helburu dituen politika honek bete-betean hartzen du bere baitan, enpresa publikoen sektorea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren lanabesetako bat den aldetik. Testuinguru honetan, eta Nafarroako Gobernuak enpresa publikoak, eginkizunei dagoenikenez, departamentuei atxikirik daudenez, kome-nigarritzat jotzen da une honetan enpresa publiko nagusiak, Nafarroako enpresa korporazio publikoa, S.M.P.k, betetzen duen holding lanak taldearen barruko koordinazioa ahalik eta handiena ahalbidetu dezan; horrexegatik, komeni da enpresa publiko nagusi horren burutza Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariak berak zuzenean bere gain hartzea, ezertan ukatu gabe ondare arloko eskumenak dituen kontseilariak berari dagozkion eskudantziak osotara betetzea.

Era berean, Nafarroako enpresa korporazio publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen ohiko jarduna errazteko, Administrazio Kontseiluko kontseilukide delegatuaren figura sortzea aurreikusi da; kasu honetan, Nafarroako Gobernuan ondare

arloko eskumenak dituen kontseilariak beteko du lan hori, Administrazio Kontseiluko karguagatiko kide ere izanik.

Artikulu bakarra. Nafarroako enpresa korporazio publikoa, S.M.P. izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen aldaketa.

3. artikulua 4. idatz-zatiari testu berria eman zaio, eta idatz-zati berri bat, bosgarrena, erantsi. Hauexek dira testuak:

“4. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ren bazkide bakarrak izendatuko ditu Administrazio Kontseiluko kideak: heren bat Nafarroako Gobernuak proposatuta, heren bat Nafarroako Parlamentuak proposatuta eta heren bat izen handiko profesional independenteen artetik. Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria izanen da Kontseiluko burua, bai eta Kontseiluko karguagati-

ko kide ere, Nafarroako Gobernuak proposatu beharreko herenaren barruan. Ondare arloko eskumena duen departamentuko kontseilaria ere karguagatiko kide izanen da Kontseiluan, Nafarroako Gobernuak proposatu beharreko herenaren barruan.

5. Sozietateko Administrazio Kontseiluak Kontseiluko kide delegatu bat izendatuko du, Kontseiluak berak emandako eginkizunak beteko dituen, ordezkaezinak direnak kenduta. Lanpostu hori Nafarroako Gobernuan ondare arloko eskumenak dituen kontseilariak beteko du, sozietateko Administrazio Kontseiluko karguagatiko kide ere izanik.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

2011ko abenduaren 31n, Estatuko Aldizkari Ofizialak Aurrekontu, Defizit publikoa zuzentzeko tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua argitaratu zuen.

Errege Lege-dekretuak 8.900 milioi euro murriztu ditu inbertsioan eta gastu publikoan. Murrizketak ondoko aurrekontuetan izan du eragina: hezkuntza, osasuna, enplegua, sustapena, nekazaritza eta ikerkuntza eta garapena.

Oinarrizko zerbitzu publikoentzat oso kaltegarriak izanen diren neurriak ere onetsi dira. 2012an amortizatzen diren langile publikoen hamar lanpostuetarik bat bakarrik beteko da.

Dekretu horretako neurri bakar bat ere ez dago bideratuta enplegua sortzera. Aitzitik, neurri horiek langabezia eta krisia areagotzea dakarte, bai eta egunetik egunera pertsona gehiagok sufrimendu handiagoa pairatzea ere.

Dekretu horrek 2010eko maiatzetik aplikatu izan diren murrizketa-politiken bidea jarraitu eta areagotzen du. Neurri horiek ez dute defizitaren arazoa konpontzen, eta ez dute enplegua sortzen laguntzen. Hasitako bideak atzeraldira eta depresi-ora eraman gaitzake.

Merkatuaren kolpe baten aurrean gaude. Ekonomiako ministro De Guindos jaunak jendaurrean adierazi zuen: "Ez badugu guk egiten, beste batzuek eginen dute." Adierazpen horiek ikusita, ez da gehiegikeria "merkatuaren kolpeaz" hitz egitea.

PPren Gobernuak bere neurriak justifikatze aldera esaten du nahitaez bete behar dela defizitaren helburua, zeina ehuneko 8koa izan baitaiteke gutxi gorabehera.

Halere, zerga bidezko diru-sarrerak erori egin dira, krisi ekonomikoarengatik ez ezik aberatsenei urte askoan egindako operari eta beherapen fiskalengatik eta zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko borondate politiko ezagatik ere.

Ematen du aurreikuspen guztiek berretsi dutela iazko azken hilabeteetan ekonomia uzkurtu dela.

Dekretuan jasotzen diren neurriek ez dute konpontzen krisiak sortutako arazoetarik bat ere. Ez dira "gaurko ogia", ezpada "biharko gose" handiagoa.

Neurri horien helburu nagusia da ziurtatzea Espainiako Estatuak zorra itzuliko diela espekulazionala. Ez gaude ados. Helbururik garrantzitsuenak, enpleguak, neurri egokiak hartzeraz behartzen gaitu, ekonomia produktiboa suspertu eta lanpostuak sortu ahal izateko.

Erregistratutako langabeziari buruzko azken datu ezagunek erakusten dute langabeen kopurua igo dela eta lanpostu ugari suntsitu dela, eta horren isla da Gizarte Segurantzako afiliazioa jaitsi izana.

Oro har, 2010aren aldean, 2011n ia bikoiztu egin da erregistratutako langabeziaren igoera (% 7,86 gehiago); Gizarte Segurantzako afiliazioaren jaitziera, berriz, % 62,8 handiagoa izan da. Iraupen luzeko langabeen kopurua gero eta handiagoa da, eta horietarik 1,5 milioi baino gehiagok ez dute inolako prestaziorik jasotzen.

Krisiak nabarmen egin du okerrera, eta austeritate politikek egoera hori areagotu besterik ez dute egin; horrek agerian uzten du murrizketen politikak porrot egin duela eta beharrezkoa eta presakoa dela politika hori berraztertzea, bai Espainiako Estatuan bai Europa osoan ere.

Krisia ezin da aitzakia bihurtu sektore publikoa pribatizatzeke eta murrizteke eta langileen baldintzak okertzeko. Publiko denaren aurka egitea Demokraziaren aurka egitea da.

Ekonomia suspertzeko plan batek baizik ezin du alderantzikatu egungo joera, zeinean langabezia baita gure herriak krisitik ateratzeko duen zamarik handiena.

Eta dekretu hori ez doa norabide horretan. Ez du ekonomia produktiboa eta enplegua sustatzeko neurri bakar bat ere jasotzen; aitzitik, murrizketan jartzen du azpimarra, sektore publikoan irazpenak dakartzan 8.900 milioi euroko doikuntza egiten baitu. Non geratzen da enplegua lehenetsi beharra?

Halere, zergen igoerak berretsi egiten du posiblea dela defizita diru-sarreraz gehiagoren bidez gutxitzea.

Errege Lege-dekretuko neurri fiskalek –itxura batean progresiboak– batik bat laneko errentei eta PFEZaren bidezko diru-sarreraz jasanarazten diete beren kostua. Zerga-igoera horretako 5 euro bakoitzeko, 4 euro laneko errentei dagozkie, eta euro bakarra dagokie kapital-errentei (aurrezkiei), zeinek justizia fiskala egonen balitz laneko errenten tasa bera ordaindu beharko bailukete.

Gainera, bankuei egiten zaie mesede beste behin; izan ere, familiei eta enpresei kreditua eman gabe jarraitu arren 100.000 milioi gehigarri-

ko abal berri bat izan ahalko dute, aurreko ekitaldian emandakoez gain. Bankuak beti irabazten du, eta zuzendaritzako goi karguek are gehiago.

Kapital aldakorreko inbertsio-sozietateei legeak ematen dien tratamenduak aldatu gabe jarraitzen du; ez da sozietateen gaineko zerga ukitu, eta Ondarearen gaineko Zerga ez da erabat berrezarri, ondare handiek gehiago ordain dezaten.

600 milioi murriztu dira I+ G+Bn, zeina erabakigarria baita krisitik ateratzeko eta produkzio-ereduan egin beharreko aldaketan aurrera egiteko. Halere, Eliza Katolikoaren pribilegioak mantentzen dira.

Enpresa handiek etekina ateratzen diote tributu arloko kontrol ezari. Bitartean, enpresa handien eta bankuen aldean, enpresa txiki eta ertainek beren irabazien askoz ere ehuneko handiagoa ordaintzen dute egiazki zergetan. Ez dago kolektibo horri laguntzeko neurri fiskalik, eta, horrenbestez, produkzio-sareak desagertzen jarraituko du, eta langabezia areagotuko da.

Beharrezkoa da iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomia-aren aurkako borroka askoz ere eraginkorragoa eta serioagoa izatea. Politika horiek bide luzeagoa egin dezakete diru-bilketaren arloan eta aukera gehiago dute zerga bidezko diru-sarrerak handitzeko, dirua biltzeko ez baita beharrezkoa langileak, erretirodunak eta langile publikoak zigortzea. Ez da neurri on bat erretiroa hartzen duten Ogasuneko eta Laneko 100 teknikaririk 90 ez ordezkatzeko.

Zergak ordaindu behar dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiek behar bezala ordainduko balituzte, Ongizatearen Estatuaren osasun egoera ona izanen litzateke, eta krisiaren eta espekulazionala aurka babesturik egonen litzateke.

PPren Gobernuaren neurriek ez dituzte ahulena babesten; aitzitik, lanbide arteko gutxieneko soldata, sortu zenez geroztik, lehendabiziko aldiz izoztu du.

Lanbide arteko gutxieneko soldata izozteak langileen egiazko ordainsariak gutxitzea esan nahi du, eta presio negatiboa egiten dio negozioazio kolektiboari.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkurak onesteko:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuatzen du Aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurri buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua. Izan ere, Parlamentuaren ustez, neurri horiek ez dute balio krisi ekonomiko larriari aurre egiteko; aitzitik, lanpostu gehiago suntsitzea eta langabezia areagotzea ekarriko dute.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitzen dio zerga-erreforma oso bat onetsi dezan, gehikortasunaren eta justizia fiskalaren printzipioekin bat, Euroguneko zerga-presioaren batez bestekoan jarriko gaituena, zergak igoko dizkiena errenta handiak dituztenei, enpresa-irabaziei, ondare handiei eta kapital-errentei, eta zerga-iruzurraren aurkako borroka eraginkor eta globala abiaraziko duena.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du banku publiko bat berreskuratzearen alde dagoela,

gai izanen dena kreditua helarazteko familiei nahiz enpresa txikiei eta ekonomia produktiboari, eta ekonomia errearen zerbitzuan egonen dena, ezen ez ekonomia espekulatioaren zerbitzuan.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du gizarte-murrizketen aurka dagoela, eta oinarrizko zerbitzu publikoak sendotzea exijitzen du, hala nola osasuna, hezkuntza edo mendekotasuna.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 24an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da sexu-esplotazioaren biktimak diren emakumeen trafikoen aurkako neurriak bultzatzen.

ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita sexu-esplotazioaren biktimak diren emakumeen trafikoen aurkako neurriak bultzatzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, sexu-esplotazioaren biktimak diren emakumeen trafikoen aurkako neurriak bultzatzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Nafarroako Gobernuak modu ofizialean eratu zuen 2011ko urtarrilaren 26an "Sexu-esplotazioaren emakume-salerosketari buruzko Nafarroako

Foroa." Foroa ondoko helburu orokorrarekin sortu zen: txosten bat egitea salerosketa-sareek esplotatutako emakumeen egoerari buruz eta mahai gainean jartzea zer pauso eman beharko liritekeen eta zer ekintza egin litezkeen erakundeek errealitate horri ekin diezaioten.

Nafarroako Gobernuak berak kuantifikatu zuen egun haietan prostituzioaren fenomenoak, zeinetan gehienbat emakumeek jarduten baitute: 500 eta 775 emakume bitarte, gehienak etorkinak (% 90etik gora).

Foroa eratu zenetik iragandako denborak bidea eman du Foru Komunitatean emakume-salerosketa zertan den jakiteko, foroak berak eskatuta egindako txostenari esker. Aldi berean, agerian gelditu da oso mugatua izan dela polizia-aren eta epaileen esparruak emakumeen esplotazioaren aurka egindako ekintzen kopurua.

Hori horrela izan daiteke, besteak beste, administrazio publiko eskudunek ez daukatelako emakume-salerosketa kasuetarako jarduketako protokolorik, entitate pribatuentzat ere loteslea dena; hortaz, beharrezkoa da protokolo hori garatzearen egokitasuna aztertzea, emakume-salerosketaren egoera horrekin lotutako entitate publikoen eta pribatuen arteko koordinazioa hobetze aldera, zeren arazo hori, azken batean, gizarte-arazo bat baita.

Bidenabar, agerian gelditu da foroa osatzen dutenen artean ez dagoela arazo hori kudeatzeko oinarrizkoa den kide bat, Botere Judiziala alegia, eta horrek beharrezkoa egiten du, orobat, berraz-

tertzea Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Foroaren osaketa.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Parlamentuak erabaki du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Botere Judiziala Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Foroko kidea gisa sar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean sexu-esplotaziorako emakume-salerosketa kasuetarako jarduketa protokolo bat taxutu dezan. Protokolo horrek, zeinak izaera orokorra izanen baitu, aintzat

hartuko ditu arlo horretan eskumenak dituzten eta arloarekin zerikusia duten entitate publikoak eta pribatuak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oroitidazki bat igor dezan urtero, zeinetan jasoko baitira Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketari buruzko Nafarroako Forok egindako jarduera nagusiak. Oroitidazki hori kasuan kasuko ekitaldia bukatu eta sei hilabeteko epean igorri beharko da Parlamentura.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutzaren Entitate Sortzaileen Batzarra desegiteko bidea eman dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Kutzaren Entitate Sortzaileen

Batzarra desegiteko bidea eman dezan. Mozio hori 2011ko urriaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio gerra zibilean eta diktaduran frankismoak egindako krimenen ikerketa judizialari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere erabateko babesa ematen dio frankismoak gerra zibilean zein diktaduran egindako krimenen ikerketa judizialari.”

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Pirinioetako autobiako azken bi zatietako ordainketari eta itzaleko bidesari gisa ordaindutako kopuruei buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Pirinioetako autobiako azken bi zatietako ordainketari eta itzaleko bidesari gisa ordaindutako kopuruei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zenbateko maiztasunez ordainduko die itzaleko bidesaritik heldu den kanona Pirinioetako autobiaren azken bi tarteen enpresa esleipen-hartzaileei? Zenbat ordaindu die gaur arte kontzeptu hori dela eta?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, Osasuneko kontseilariak “Recomendaciones para una actuación pública sensata y responsable” izeneko dokumentuari buruz duen iritziaren gainekoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Osasuneko kontseilariak “Recomendaciones para una actuación

pública sensata y responsable” izeneko dokumentuari buruz duen iritziaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Ganberako araudiak dienari jarraiki, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, zehazten den Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan urtarrilaren 25ean Osasun Departamentuko kontseilari Marta Vera andereak AES (Asociación de Economía de la Salud) erakundeak antolatutako foro batean hartu zuen parte.

Jardunaldiaren helburua dokumentu jakin bat bul-tzatzea zen, "Recomendaciones para una actuación pública sensata y responsable" izenburua zuena.

Horren harira, jakin nahiko genuke zer iritzi duen Kontseilari andereak dokumentu horretaz eta, era berean, ea oinarri hartuko duen bere arlo-aren kudeaketarako.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Gobernu Irekiaren proiektua zabaltzeko kanpainaren aurkezpenari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Gobernu Irekiaren proiektua zabaltzeko kanpainaren aurkezpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, kasuko gobernu-organoak idatziz erantzun diezaion:

Urtarrilaren 20an, ostiralean, prentsan agertu zen albistearen arabera, afari bat egin zen "Gobernu Irekia" proiektuaren zabalkunde-kanpainaren barruan sakelako telefonoetarako aplikazioa aurkeztu ondoren. Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi da:

Zer irizpide baliatzen da gisa horretako afarie-tako gonbidatuak hautatzeko?

Nazioko nahiz erregioko zer hedabide egon ziren afari horretan?

Zenbatekoa izan zen Gobernu Irekiaren zuzen-darritza nagusiak ordaindutako faktura?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, Nafarroako Larrialdietako Agentziako sarjentu izateko bost lanposturen deialdiari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Larrialdietako Agentziako sarjentu izateko bost lanposturen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du.

Ondokoa jakin nahi dugu Nafarroako Larrialdietarako Agentziak 5 sarjentu-lanpostu betetzeko egindako deialdiari dagokionez:

1. Deialdia egiteko arrazoia.

2. Egitura aldatu izanaren arrazoia eta guardietan 2 agintedun egotetik 3 agintedun egotera iragan izanaren arrazoia, bai eta horrek guztiak zerbitzuan izanaren duen eragina ere.

3. Sarjentu-lanpostuen deialdia zertan den, ordezkari sindikalek horien aurka errekurtsok jarri ondotik, bai eta Nafarroako Larrialdietarako Agentziak errekurtsok horiek galduz gero sor litezkeen ondorioak ere.

4. Deialdi horri buruzko negoziatorik egin al da sindikatuekin? Hala baldin bada, ondokoa jakin nahi dugu: zer bilera egin diren eta sindikatuek eta Nafarroako Larrialdietarako Agentziaren ordezkariak zer jarrera izan duten.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, jakiteko nola betetzeko asmoa duen Nafarroako Larrialdietako Agentziak Iruñeko lan arloko 2. epaitegiak emandako 215/2011 epaia.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko asmoa duen Nafarroako Larrialdietako Agentziak Iruñeko lan arloko 2. epaitegiak emandako 215/2011 epaia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau idatziz erantzutea eskatzen du:

1. Nafarroako Larrialdietarako Agentziak nola

bete nahi du Iruñeko lan arloko 2. zenbakiko epaitegiaren 215/2011 epaia?

2. Nafarroako Larrialdietarako Agentziak zer egingen du epai horretatik heldu den langileen antzintasunari dagokionez?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Turismoaren Nazioarteko Azokan egotearen kostuari buruzkoa.
AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Turismoaren Nazioarteko Azokan egotearen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Kulturako, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zein izan da Nafarroa Fitur-Nazioarteko Turismo Azokan egotearen kostu osoa? Erantzuna kontusailz kontusail ematea nahi dugu.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Orbaitzetako arma lantegian aurreikusitako esku-hartzeari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Orbaitzetako arma lantegian aurreikusitako esku-hartzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak egin ditu, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kasuko kontusailean jasota ageri denez, Orbaitzetako Arma Fabrika 2012rako aurreikusitako esku-hartzea 105.200 eurokoa izanen da. Zein dira esku-hartze horren xehetasunak?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, 2011ko abenduan hartutako tributu-neurrien ondorioz izan den presio fiskalari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2011ko abenduan hartutako tributu-neurrien ondorioz izan den presio fiskalari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

Nafarroako Gobernuak behin eta berriro aipatzen du "zerga-presio baliokidea", Nafarroaren erabakiek zergen arloan Estatuarekiko jasan behar duten egungo autogobernu mugatuaren ondorioz. Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

1. Nafarroako Parlamentuak 2011ko abenduan onetsitako tributu-neurrien ondorioz, zein da Nafarroako egungo zerga-presioaren indizea? Zehaztu kalkulua egiteko baliatu diren osagaiak.

2. Zein zen Estatuaren zerga-presioaren indizea 2011ko abenduan? Zehaztu kalkulua egiteko baliatu diren osagaiak.

3. Espainiako Gobernuak onetsi eta Diputatuen Kongresuak 2012ko urtarrilean berretsitako neurrien ondorioz, zein da Estatuaren zerga-presioaren indizea? Zehaztu kalkulua egiteko baliatu diren osagaiak.

4. Nafarroako Gobernuak Madrilek ezarritako neurriak, edo bere erabakiari jarraikiz proposatzen dituenak, aplikatzea erabakitzen baldin badu, zein

izan behar du Nafarroako zerga-presioak? Zehaztu kalkulua egiteko baliatu diren osagaiak.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 1512-2012 mendeurrena dela-eta prestatutako programari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, 1512-2012 mendeurrena dela-eta prestatutako programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Ganberako araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

Jakin nahi dut ea 1512-2012 urteurrenerako Nafarroako Gobernuaren programa finkatuta dagoen.

Zer egiteko asmoa du Gobernuak? Zein da programa zehatza?

Programa zehatzik ez badago, noizko du finkatzeko asmoa?

Programa zehatza egotekotan, zein aurrekontu partidaren gainean edo partiden gainean dago oinarritua programa hori?

Zenbat diru kostako da egitaraua gauzatzea?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, erradioterapia tratamendua hartzen duten Erriberako gaixoen-tzako autobus zerbitzuaren gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, erradioterapia tratamendua hartzen duten Erriberako gaixoen-tzako autobus zerbitzuaren gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simon Caballero, Legebiltzarreko Erregela-

menduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Gure informazioen arabera, autobus batek birritan egiten du Nafarroako Erriberatik Iruñerako bidaia, erradioterapiako tratamendua egin behar duten gaixoak eramateko eta ekartzeko. Bata 08:00ak inguru eta bestea 14:00ak inguru.

Tratamendu horietan hogeita eta hogeita bost saio egiten dira jarraian, astelehenetik ostiralera. Zenbait kasutan, berrogei saio egitera irits daiteke.

Autobusak ia beteta joaten dira; halatan, sarritan, laguntzaileek ez dute bidaia egiteko tokirik edukitzen. Halere, gaixoen gogobetetasuna oso handia da.

Osasun Departamentuak zer aurreikusten du zerbitzu hori mantentzeko dagokionez? Osasun Departamentuak aurreikusita al du zerbitzu hori kentzea edo aldatzea?

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 25ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, jakiteko ba ote dagoen natur monumentuak mantentzeko inolako planik.

JOSÉ FERNANDO IBILTZIETA OLLETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ba ote dagoen natur monumentuak mantentzeko inolako planik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari J. Fernando Ibiltzieta Olletak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak ba al du Nafarroako natur monumentuak mantentzeko planik?

Hala baldin bada, horren kopia jaso nahi nuke.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Fernando Ibiltzieta Olleta

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Comptos Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamendua- ren aldaketa.

Comptos Ganberako lehendakariaren 2007ko otsailaren 16ko erabakiaren bitartez, erakunde horren Antolaketari buruzko Erregelamendua onetsi zen.

Lehendakari honek urtarrilaren 25ean hartutako erabakiaren bidez onetsi da Comptos Ganberaren 2012rako plantilla organikoa, zeinean erakunde honetako informatika alorrerako lanpostu berri bat jasotzen baita, erakundeko lanpostuen gaur egungo sailkapeneko "C" mailan: "sistema informatikoetako ofizial teknikoa".

Lanpostu hori Ganberako sistema informatikoetako goi-mailako teknikariaren zuzendaritzapean egonen da, eta haren eginkizuna izanen da erakundearen erabiltzaileei laguntza eta zerbitzua ematea eta goi-mailako teknikariak agin diezazkiokeen zereginak egitea.

Hortaz, beharrezkoa da Comptos Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduan sartzea sistema informatikoetako ofizial teknikoaren lanpostu berri hori, bai eta haren aginte-menpekotasuna eta eginkizunak ere. Hartara, lehendakari honek, Ganberako auditoreei eta sistema informatikoetako goi-mailako teknikariari nahiz Langileen Batzordeari entzun ostean, erakundeko idazkari nagusiak proposatuta, Comptos Ganbera arautzen duen Foru Legean aitortzen zaizkion ahalmenak eta eskumenak baliatuta, ondokoa ERABAKI DU:

Lehena. 7 bis artikulua berria txertatzea Nafarroako Comptos Ganberaren Antolaketari buruzko Erregelamenduan, zeina 2007ko otsailaren 16ko erabaki bidez onetsi baitzen, erakundeko sistema informatikoetako ofizial teknikoaren lanpostu berriari eskatutako titulazioa, eginkizunak eta aginte-menpekotasuna arautzeko, erabaki honetako I. eranskinean ezarritako moduan.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, Mahaiak honen berri izan dezan eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-

tara dadin agin dezan. Erabakia orobat igorriko zaie Ganberako idazkari nagusiari, administratzaileari, kontu-hartzaileari, sistema informatikoetako goi-mailako teknikariari eta Langileen Batzordeari, honen berri izan dezaten.

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

I. eranskina

7. bis artikulua.

1. Ganberako sistema informatikoetako goi-mailako teknikariaren zuzendaritzapean jardunen da sistema informatikoetako ofizial teknikoa, zeinak ondoko eginkizunak izanen baititu:

a) Laguntza informatikoa ematea Ganberako erabiltzaileei, beren lanak egiten ari diren bitartean.

b) Comptos Ganberan tresna informatikoak garatzen eta ezartzen laguntzea Ganberako sistema informatikoetako goi-mailako teknikariari.

c) Erabiltzaileei laguntza teknikoa ematea teknologia berrien erabilerari eta aplikazio-aukerei dagokienez.

d) Sistema informatikoetako goi-mailako teknikariaren zuzendaritzapean instalatutako ekipoak eta programak mantentzea.

e) Sistema informatikoetako goi-mailako teknikariak, bai eta Comptos Ganberako langileek ere, eska diezazkioketen gisako eginkizun guztiak, bere titulazioak eta ezagutza-arloak berezkoak dituztenak.

2. Sistema informatikoetako ofizial teknikoaren lanpostua Ganberako lanpostuen egungo sailkapeneko "C" mailan sartuko da, eta goi-mailako Batxilergoa, bigarren graduako Lanbide Heziketa edo gisako titulua eduki beharko da lanpostua betetzeko.

Nafarroako Comptos Ganberako 2012. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2011ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Comptos Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako erabaki hau eman zuen:

“Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dute urtero onetsi behar direla erakunde horren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta funtzionarioen zerrenda.

Hartara, ikusita erakundearen idazkari nagusiak urtarrilaren 23an aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzailearen, kontu-hartzailearen eta zerbitzu juridikoen aldeko txostena jaso ondotik eta Comptos Ganberako Langileen Batzordea informatu eta hari entzun ondotik, lehendakari naizen aldetik, nire ahalmen eta esku-menak baliatuta, ondokoa

EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Comptos Ganberako 2012. urterako plantilla organikoa onestea. Plantilla 1. eranskinean ageri da.

Bigarrena. Nafarroako Comptos Ganberako funtzionarioen 2011ko abenduaren 31ko zerrenda onestea. Zerrenda 2. eranskinean ageri da.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari jakinaraztea behar diren ondorioak sor ditzan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan.”

Iruñean, 2012ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Comptos Ganberako plantilla organikoa 2012. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskararen titulazioa	Izendapen askea	Esklusibitatea	Lanpostua	Mailako osagarria	Berariazko osagarria
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari nagusia	1	A	F		X	55	80,80		35
Auditorea	4	A	F			55	80,80		10
Legelaria	2	A	F			55	63,80		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	X		55	59,80		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	40,80		
Auditoretzako teknikari- kontu-hartzailea	1	B	F			55	50,20		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	50,20		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	50,20		
Administratzailea	1	C	F		X	55	58,00	12	
Administraria	5	C	F				46,18	12	
Administraria	1	C	F	X			46,18	12	
Sistema informatikoetako ofiziala	1	C	F				46,18	12	
Mandataria	2	D	F				36,50	15	
GUZTIRA.....38									

F: Funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

2. eranskina

2011ko abenduaren 31n Nafarroako Comptos Ganberaren
zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Deiturak eta izena	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	6	Idazkari nagusia	Aktiboa
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	7	Auditorea	Aktiboa
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	6	Auditorea	Aktiboa
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	5	Auditorea	Aktiboa
Moreno Orduña, Karen	A	2	Auditorea	Aktiboa
Ezquerro Royo, José Luis	A	6	Legelaria	Aktiboa
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	3	Legelaria	Aktiboa
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	7	Informatikako sistemen goi mailako teknikaria	Aktiboa
Erbiti Zabalza, Fermín	A	4	Kazetari-itzultzailea *	Aktiboa
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	6	Auditoretzako teknikari-kontu-hartzailea	Aktiboa
Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Balduz Gil, Elvira	B	5	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Eszedentzia berezia.
Equiza Maquirrian, M ^a José	B	7	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Etayo Salazar, Francisco José	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	2	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	7	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Marticorena Chapa, Xavier Iñigo	B	4	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Martinekorena Matxain, Miren Edurne	B	2	Auditoretzako teknikaria *	Aktiboa
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	1	Auditoretzako teknikaria *	Aktiboa
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	7	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	6	Auditoretzako teknikaria	Aktiboa
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	6	Administratzailea	Aktiboa
Casado Redín, Cristina	C	5	Administraria	Aktiboa
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	5	Administraria	Aktiboa
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	6	Administraria *	Aktiboa
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	5	Administraria	Aktiboa
Pérez de Albéniz Andueza, Francisca	C	5	Administraria	Aktiboa
Lanpostu hutsa	C		Administraria	-
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	6	Mandataria	Zerbitzu bereziak
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	5	Mandataria	Aktiboa

* Euskara tituluarekin

